



**TESTU BATEGINA, otsailaren 3ko 22/2009 DEKRETU****Arena, maiatzaren 8ko 61/2012 Dekretuak xedatzen dituen aldaketekin.** Dekretu honen bitartez, prozedura arautzen da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendaria aukeratzeko, eta pertsona bakarreko beste gobernu-organoak izendatzeko eta kargua uzteko.

1. artikulua.- Helburua.

Dekretu honen helburu da prozedurak arautzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendaria aukeratzeko, izendatzeko eta kargua uzteko; era berean, pertsona bakarreko beste gobernu-organoak izendatzeko eta kargua uzteko prozedurak arautzen dira.

2. artikulua.- Aplikazio-esparrua.

Lanbide Heziketako Ikastegi Bateratuak eta Estatuko Erreferentziako Lanbide Heziketako Ikastegiak salbuetsita, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza eskaintzen duten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publiko guztietan aplikatuko da dekretu hau, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak eta lege hori garatzen duten eta oinarritzko arau izaera duten arauak aplikatzen diren alderdi espezifikotan.

3. artikulua.- Printzipio orokorrak.

1.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe bateko zuzendaria izendatzeko agindutako irakaskuntzetako bat ematen duen karrerako irakasle funtzionarioetako bat aukeratuko da merezimendu-lehiaketa bidez. Berdintasun, publikitate, merezimendu eta gaitasuneko printzipioen arabera aukeratuko da.

**2.- Merezimendu-lehiaketak bi fase izango ditu. Lehen fasean zuzendaritza-proiektua aztertuko da eta, proiektu horretan, ikastetxeko hezkuntza-proiektua zuzentzeko hautagaiak egiten duen proposamena bilduko da. Bigarren fasean, ikastetxeko zuzendaritzara hautagaitza aurkeztu duten pertsonak alegatutako merezimenduak hartuko dira kontuan.**

4. artikulua.- Izangaien betebeharrak.

1.- Merezimendu-lehiaketan parte hartzeko honako baldintza hauek bete beharko dituzte irakasleek:

a) Gutxienez, bost urteko antzintasuna izatea irakaskuntzako funtzio publikoan karrerako funtzionario gisa.



b) Epe horretan, hautagaiak karrerako funtzionario gisa zuzenean irakasten egon behar izan du zuzendu nahi duen ikastegiak eskaintzen dituen irakaskuntzetakoren batean.

c) Deialdia argitaratutako unean, gutxienez, ikasturte bateko esperientzia izan behar du zuzendu nahi duen ikastegiak eskaintako gaietakoren batean eskolak ematen Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ikastetxe publikotan.

**d) Zuzendaritza-proiektu bat aurkeztea, hauek jaso behar dituenak: dekretu honen eranskinan adierazitakoak; eta ikastetxeko gainerako kide bakarrek gobernuko organoak betetzeko proposatutako pertsonen izenak. Zuzendaritza-proiektuak gehienez 15 folio izango ditu eta alde batetik eta espazio bikoitza utzita idatziko da.**

2.- Haur Hezkuntzako ikastetxe espezifikoetan, Lehen Hezkuntzako osatu gabeetan, zortzi unitate baino gutxiagoko Bigarren Hezkuntzakoetan, zortzi irakasle baino gutxiago dituzten helduentzako ikastetxeetan, irakaskuntza artistiko profesionalekin, kirolarekin edo hizkuntzekin lotuak daudenetan, merezimendu-lehiaketan parte hartzeko edozein irakaslek aurreko atalean adierazitako baldintzak bete beharko ditu honako aldaketa hauekin:

a) Orokorrean exijitutako bost urte barik, irakaskuntzako funtzio publikoan karrerako funtzionario gisa urtebeteko antzinatasuna izan behar du, gutxienez, irakaskuntza-lanetan.

b) Orokorrean exijitutako bost urte beharrean, karrerako funtzionario gisa, irakasle-lanak betetzen, gutxienez, urtebete beteta izan beharko du zuzendari izan nahi duen ikastetxeak eskaintzen dituen gaietakoren batean.

3.- Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen bigarren aldaketari buruzko xxxxxaren xxko xx/2008 Legearen lehen xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera, lan-kontratudun irakasleek ikastetxeko irakasle guztien ehuneko berrogeita hamarra, gutxienez, ordezkatzen duten ikastetxetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko lan-kontratudun edozein irakasle finkok aurkeztu ahal izango du bere hautagaitza, baldin eta eskatutako ikastetxean destinoa badu eta kasu bakoitzean exijitutako gainerako baldintzak betetzen baditu.

Lan-kontratudun irakasleek aurkeztutako hautagaitzak kontuan hartuko dira beste hautagaitzarik aurkezten ez denean edo beste hautagaitzarik aukeratzen ez denean.

4.- Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu den egunean kasu bakoitzean eskatutako baldintza guztiak bete beharko ditu pertsona batek hautagai izateko.

5. artikulua.- Aukeraketa-batzordeak.

1.- Aukeraketa-batzordea eratuko da unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako bakoitzean, baldin eta aukeraketa-prozesua egin beharra badago eta, gutxienez, hautagai bat aurkeztu bada.



2.- Ikastetxe bakoitzeko aukeraketa-batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- Ikastetxeari dagokion Ikuskaritzako lurraldeburuak proposatutako hezkuntza-ikuskatzaile batek. Batzordeko lehendakari jardungo du.

- Ikastetxeko klaustroko kideek euren artean aukeratutako ikastetxeko irakasleen bi ordezkari. Irakasle helduenak batzordeko idazkari gisa jardungo du, hitz egiteko eta botoa emateko aukerarekin.

- Ikastetxeko irakasle ez diren ikastetxe bertako ordezkari-organoren kideek euren artean aukeratutako bi lagunek. Hezkuntza Berezia, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxeetan, gutxienez horietako batek ikasleen gurasoen sektoreko ordezkaria izan behar du. Ordezkari-organoren kideek ikasleen ordezkari-organoren kideek ikastetxeetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren kurtsotik gorako ikasleek baino ez dute izango aukeratzeko eta aukeratuak izateko posibilitatea.

3.- Hautagaien hizkuntza eskubideak eta Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Legea errespetatze aldera, aukeraketa-batzordeko kideen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa duten kideak egotea bermatuko da.

4.- Aukeraketa-batzordeetako kideak dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkariak izendatuko ditu.

5.- Ikastetxeko zuzendaritzara aurkeztu diren irakasleek ezingo dute aukeraketa-batzordeko kide izan.

6.- Gaixotasunagatik edo beste edozein arrazoi justifikatuagatik batzordeko lehendakariak bilera batera joan ezin badu, ikastetxeari dagokion Ikuskaritzako lurraldeburuak proposatutako beste hezkuntza-ikuskatzaile batek ordezkatu du.

7.- Gaixotasunagatik edo beste edozein arrazoi justifikatuagatik ordezkari-organoren kide edo klaustroko ordezkari batek bileretara joan ezin badu, Dekretu honetako 10. artikuluan aipatutako ordezkari-zerrendan agertzen den pertsona batek ordezkatu du. Zerrenda horretako ordena errespetatuko da. Batzordeko idazkariaren ordezkari ezinezkoa bada, berari dagozkion funtzioak klaustroaren beste ordezkari batek beteko ditu. Bilera batean klaustroko ordezkari ez badago, idazkari-funtzioak ordezkari-organoren kideordezkariaren kideen artean pertsona helduenak beteko ditu.

8.- Aukeraketa-batzordearen bilera batek balioa izateko, bertan egon behar dute lehendakariak eta batzordeko beste bi lagunek edo horiek ordezkariak dituztenek.



9.- Aukeraketa-batzordeko kideek ez dute prozeduran esku hartuko eta indarreko araudian aurreikusitako baldintzak bertan adierazitako moduan ematen direnean ezetsiak izan daitezke

6. artikulua.- Funtzio jakinak betetzeko bateraezintasunak.

1.- Euren ikastetxeko zuzendaritzarako merezimendu-lehiaketara aurkezten diren eta funtzio hori betetzen ari diren zuzendariak ezingo dute aukeraketa-batzordeko kide izan, eta ezingo dituzte aukeraketa-prozesuan ikastetxeko zuzendariari esleitutako funtzioak bete. Funtzio horiek ikastetxeko zuzendariordeak beteko ditu, edo, ondorioz, zuzendariondokoak, ikasketaburuak, ordezeko ikasketaburuak edo ikastetxeko idazkariordeak; baldin eta aipatutako pertsona horiek euren hautagaitza aurkeztu ez badute.

2.- Goian aipatutako karguak dituzten pertsona guztiek ikastetxeko zuzendaritzarako hautagaitza aurkeztu badute, aukeraketa-prozesuan ikastetxeko zuzendariari esleitutako funtzioak bete behar dituen ikastetxeko irakaslea izendatuko du Hezkuntzako lurralde-ordezkariek.

3.- Ikastetxeko zuzendaritzarako hautagaitza aurkezten duten irakasleek eskubidea izaten jarraituko dute klaustroaren bileretan egoteko, parte hartzeko eta botoa emateko, eta hala badagokio, aukeraketa-batzordean organo horietako ordezkariak aukeratu behar diren ordezkari-organoren bileretan ere eskubide horiek izango dituzte.

**7. artikulua.- Deialdia.**

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztutako ikasturteetan, sailburuaren Agindu bidez merezimendu-lehiaketa deituko da, Sail horren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendariak aukeratzeko. Horretarako, ikastetxe horietako zuzendari-postuak hutsik geratu behar du ikasturte horren amaieran.**

8. artikulua.- Eskaerak aurkeztea.

1.- Merezimendu-lehiaketarako deia egiteko Aginduan ezartzen den epean, Agindu horretan zehaztutako ikastetxeetako zuzendarigaiak eskaera idatziz aurkeztu ahal izango diote dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-buruari. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru ikastetxetako zuzendaritzarako hautagaitza aurkeztu ahal izango du, gehienez ere, pertsona bakoitzak.

2.- Eskaerarekin batera, argudiatutako merezimenduak frogatzeko dokumentazioa erantsi beharko dute, Dekretu honen eranskinean adierazitako baremoarekin lotuta. Halaber, Dekretu honen 4.1. artikuluan zehaztutako d) baldintzari dagokion zuzendaritza-proiektua ere erantsi beharko dute.



3.- Zuzendaritza-proiektua lantzeko, zuzendari izan nahi duten pertsonak dagokion lurralde-ordezkaritzan kontsultatu ahal izango dute zuzendari izateko aurkeztu diren ikastetxeetako dokumentazioa.

4.- Hautagaiek eskaera, honekin aurkeztu beharreko agiriak eta Zuzendaritza Proiektua, beren aukerako hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte. Halaber, hautaketa prozesuaren ondoriozko harremanetan eta prozedura guztian ere hautagaiaren aukerako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Legeko 5.2.a) eta 6.1. artikuluei jarraiki.

9. artikulua.- Eskaerak onartzea.

**1.- Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta berehala, hautagaiek parte hartu ahal izateko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko dagokien lurralde-zerbitzuek, dagokion lurralde historikoko hezkuntzako lurralde-ordezkararen eskaerari jarraiki.**

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde-zerbitzuek eskatutako informazio guztia eman beharko dute prozesuaren deialdia jasotzen duen aginduan ezarritako epean.**

2.- Prozesuaren deialdiko Aginduan zehaztuko den epean, dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek erabakiko du aurkeztutako eskaerak onartu edo atzera botatzea, eta horretarako kontuan izango ditu eman dizkieten datuak. Exijitutako baldintzetakoren bat betetzen ez badute eskaera ez da onartuko. Dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkararen ebazpenak zehaztuko zein arrazoi dagoen onartu ez dituzten pertsonak kanporatzeko. Onartutako pertsonen kasuan, dagokion ikasturtean ikastetxe horretan lekua ote duen ere zehaztuko du zuzendarigaiak.

3.- Ebazpen horiek Hezkuntzako dagokion lurralde-ordezkaritzaren egoitzaren iragarki-taulan argitaratuko dira. Argitaratze horren bitartez pertsona interesatuei jakinarazpena egin zaiela ulertuko da.

4.- Dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ikuskaritzako buruak ebazpenaren berri emango dio eragiten dion ikastetxeko zuzendariari, bertako iragarki-taulan ere argitara emateko.

5.- Ebazpen horien aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote dagokien lurralde historikoko hezkuntza-ordezkarari.

10. artikulua.- Aukeraketa-batzordea eratzea.

1.- Ikastetxe horretako zuzendaritzarako hautagai bat edo gehiago onartuta daudela adierazten dietenean eratu beharko da ikastetxe bakoitzeko aukeraketa-batzordea

2.- Batzordea eratu behar den ikastetxeetan, Ikuskaritzako lurraldeburuak dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkarari jakinaraziko dio zein den aukeraketa-batzorde bakoitzeko buru izango den ikuskatzailearen izena. Hori egiteko epea prozesuaren deialdiko Aginduan zehaztuko da.



3.- Halaber, prozesuaren deialdiko Aginduan zehaztuko den epean, ikastetxeko zuzendariak klaustroa eta ordezkari-tza-organo gorena deituko ditu, onartutako eskaerak jakinarazteko eta aukeraketa-batzordean erakunde bakoitzeko ordezkariak aukeratzeko. Zuzendaria bera ikastetxeko zuzendaritzarako hautagaietako bat bada, abstenitu egin beharko da eta funtzio horiek dagokion pertsonaren esku utziko ditu, Dekretu honetako 6. artikuluan zehaztutakoa jarraituta.

4.- Klaustroko eta ordezkari-tza-organo goreneko bi ordezkariak organo horietan aukeratu dituzte bozketa sekretu bidez. Bertan, botoa emateko eskubidea duen pertsona bakoitzak pertsona bakar bati eman ahal izango dio botoa. Boto gehien lortzen duten bi pertsonak aukeratu dituzte, salbu Hezkuntza Berezia, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxeetan. Ikastetxe horietan Ordezkari-tza Organo Goreneko kideetako bat nahitaez izango da boto gehien lortzen duen gurasoen sektoreko ordezkaria.

Berdinketarik badago, bigarren bozketa bat egingo da berdinketa desegiteko, eta, behar izanez gero, hirugarren bat. Bozketa horietan berdindutako pertsonak baino ezingo dira bozkatu. Hirugarren bozketa egin ostean, berdinketarik badago, zozketa publikoa egingo da.

5.- Klaustroko eta ordezkari-tza-organo goreneko bi ordezkariak aukeratu, organo bakoitzean ordezkoen zerrenda osatuko da. Botoren bat jaso duten pertsonen osatuko dute zerrenda bakoitza. Boto gehien lortu dituen pertsona egongo da lehenengoa, eta azkena, berriz, boto gutxien jaso dituenak. Ordezkoen zerrendetan berdinketarik badago, zozketa publiko bidez erabakiko dira.

6.- Organo bakoitzaren bilera-aktaren kopia igorriko dio ikastetxeko zuzendariak edo horren ordezkariak dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariari.

7.- Hauteskundeak egingo diren ikastetxe bakoitzeko aukeraketa-batzordeetako kideak izendatuko ditu dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariak. Kideak izendatu ondoren, aukeraketa-prozesuaren deialdiko Aginduan finkatutako epearen barne eratu beharko dira aukeraketa-batzordeak.

8.- Ikastetxe bakoitzeko aukeraketa-batzordearen osaketa jendaurrean jarriko da dagokion ikastetxeko iragarki-taulan.

## **11. artikulua.- Zuzendaritza-proiektua baloratzea.**

**1.- Fase honen helburu da zuzendaritza-proiektua balioztatzea, bai eta proiektu hori ikastetxerako egokia den aztertzea ere. Horretarako kontuan hartuko dira Dekretu honetako eranskinean ezarritako lehen faseko baremoan zehaztutako edukiak eta balorazio-irizpideak.**

**2.- Lehen fase honetan, hautagaiak 35 puntu lortu behar dituzte, gutxienez. Gutxieneko puntuaketa hori lortzen ez duten izangaiak aukeraketa-prozesutik kanpo geratuko dira.**



**3.- Merezimenduen lehiaketaren lehen fasean, aukeraketa-batzordeak honako hau baloratuko du lehendabizi: dagokion ikasturtean ikastetxe horretan behin betiko edo behin-behineko postua duten hautagaien zuzendaritza-proiektua, Dekretu honetako eranskinean jasotako baremoko lehen fasean aurreikusitako irizpideak kontuan hartuta.**

**Horrelako hautagairik ez badago edo ikastetxeko hautagaiek fase horretan eskatutako gutxienezko puntuazioa lortzen ez badute, aukeraketa-batzordeak kanpoko ikastetxetan postua duten hautagaien proiektuak aztertuko ditu.**

**Azkenik, horrelako hautagairik ez badago edo hautagai horiek fase horretan eskatutako gutxienezko puntuazioa lortzen ez badute, Dekretu honetako 4. artikuluko 3. idatz-zatian zehaztutako ikastetxeetako aukeraketa-batzordeak ikastetxe horretako lan-kontratudun irakasle hautagaien proiektuak aztertuko ditu.**

**4.- Aukeraketa-batzordeak hautagaiak elkarrizketatu ahal izango ditu -aurretik hitzordua adostuta- zuzendaritza-proiektuan jasotako informazioa osatzeko, eta proiektua ikastetxerako eta eskatutako posturako egokia ote den aztertzeko.**

**5.- Aukeraketa-batzordeko kide guztiek zuzendaritza-proiektua balioztatuko dute, eta 0 eta 70 arteko puntuazioa emango. Pertsona bakoitzak emandako puntuazioak zenbaki osoa izan beharko du. Kalifikazioa emateko bilduko den aukeraketa-batzordearen bileran bildutako kideek emandako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da zuzendaritza-proiektuagatik lehiakide bakoitzak lortutako puntuaketa, eta bi zenbaki hamartarrekin kalkulatu da. Emandako kalifikazioetan 20 puntu edo gehiagoko aldea dagoenean, automatikoki kenduko dira kalifikazio maximoa eta minimoa, eta gainerako kalifikazioen artean kalkulatu da batez besteko puntuaketa.**

**12. artikulua.- Bigarren faseko merezimenduen balorazioa.**

**1.- Ikastetxe batean hautagai bakar baten eskaera soilik onartu bada, ez da beharrezkoa izango hautagaiak bigarren faserako aurkeztutako merezimenduak balioestea.**

**2.- Hautagai baten baino gehiagoren eskaerak onartu dituzten ikastetxeetan, eta prozesuaren deialdia jasotzen duen aginduak ezarritako epean, Hezkuntzako Lurralde Ordezkariek eskaera egingo die dagokion irakasgaiaren arabera horretarako eskumena duten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde-zerbitzuei hautagaiek lehiaketako bigarren faserako aurkeztutako merezimenduak egiaztatu ditzaten, eta, ondoren, dagokion hautapen-batzordeari helaraziko dizkio datu horiek.**

**3.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde-zerbitzuek hezkuntzako lurralde-ordezkariek eskatutako informazio guztia eman beharko dute aipatutako aginduan ezarritako epean.**



4.- Lehen aipatutako datuak helaraziko dizkio dagokion lurralde historikoko hezkuntzako lurralde-ordezkariek hautagaitza bat baino gehiago onartu duten ikastetxeetako batzorde-presidentetzari. Onartutako hautagaiek bigarren faserako aurkeztutako merezimenduen egiaztapenari buruzkoak izango dira datu horiek. Pertsona horietako bakoitzak aurkeztutako zuzendaritza-proiektua ere helaraziko dio batzordeari.

5.- Hautagaitza bakar bat onartu duten ikastetxeetan, hautagai horrek aurkeztutako zuzendaritza-proiektuaren inguruko dokumentazioa soilik eman beharko du.

6.- Hautagaiek bigarren faserako aurkeztutako merezimenduak balioetsi beharko ditu hautapen-batzordeak, Dekretu honetako eranskinean ezarritako baremoari jarraiki, prozesuaren deialdia jasotzen duen aginduan ezarritako epean, eta aurrez aipatutako datu guztiak kontuan hartuta.

12 bis artikulua.- Hautagai bakoitzak eskuratutako puntuazioari buruzko ebazpena.

1.- Prozesuaren deialdia jasotzen duen aginduan ezarritako egunean, hautapen-batzordeek Hezkuntzako dagokion lurralde-ordezkaritzaren egoitzaren iragarki-taulan argitaratuko dituzte hautagaiek fase bakoitzean eta Dekretu honetako eranskinean ezarritako baremoko baloratzeko alderdi bakoitzean eskuratutako puntuazioak jasoko dituzten behin-behineko ebazpenak. Osagarri gisa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web-orrian eta dagokien ikastetxeetan argitaratu ahal izango dituzte aipatutako puntuazioak.

2.- Behin-behineko ebazpen horien kontra, pertsona interesdunek dagokion erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute dagokion hautapen-batzordearen aurrean, prozesuaren deialdia jasotzen duen aginduan ezarritako epean. Epe honen zerbaketa Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzan ebazpenak argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da.

3.- Aurkeztutako erreklamazioak aztertuko dituzte hautapen-batzordeek, eta hautagaiek fase bakoitzean eta Dekretu honetako eranskinean ezarritako baremoko baloratzeko alderdi bakoitzean eskuratutako puntuazioak jasoko dituzten behin betiko ebazpenak onartuko dituzte.

13. artikulua.- Zuzendaria aukeratzea.

1.- Ikastetxean postua duten irakasle hautagaien artean -halakorik badaude- bi faseetako puntuak batuta puntu gehien lortu duen hautagaia aukeratzeko proposamena egingo du aukeraketa-batzordeak. Lehen fasean ezarritako gutxieneko puntuak lortu dituzten hautagaien artean aukeratuko du.

2.- Modu horretan pertsonarik aukeratu ezin bada, irizpide bera jarraituko zaie ikastetxean postua ez duten hautagaiei. Dekretu honen 4. artikuluko 3. idatz-zatian zehaztutako ikastetxeen kasuan, berriz, irizpide hori hautagaitza aurkeztu duten ikastetxe horretako lan-kontratudun irakasleei aplikatuko zaie.





**3.- Hautagaien guztizko puntuaketa batuta berdinketarik izanez gero, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan ebazteko:**

**- Zuzendaritza-proiektuaren puntuaketa altuena.**

**- Dekretu honen eranskinean agertzen diren ordena jarraituta, bigarren faseko merezimenduen baremoaren ataletan puntuaketa altuena.**

**- Dekretu honen eranskinean agertzen diren ordena jarraituta, bigarren faseko merezimenduen baremoaren azpiataletan puntuaketa altuena.**

**- Aurreko irizpideak aplikatu ondoren oraindik berdinduta daudenen artean pertsona bat aukeratzeko, Batzordeko kideen arteko bozketa egingo da. Bozketan berdinketa gertatzez bada, lehendakariaren kalitateko botoak erabakiko du.**

**4.- Batzordeko idazkariak akta idatziko du hautagai guztiek fase bakoitzean lortutako puntuaketak egiaztatzeko, eta norbait aukeratzen badute, pertsona horren izena jasoko du, aurreko paragrafoetan ezarritako irizpideak kontuan hartuta. Akta batzordeko kide guztiek sinatuko dute.**

**5.- Batzordeko lehendakariak jendaurrean jarriko du akta hori ikastetxeko iragarki-taulan, eta dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari igorriko dio.**

**6.- Aukeraketa-batzordeek egindako proposamenak ikusita eta, prozedura haustea gertatu ez bada, horiek erabakitakoari jarraiki, aukeratutako hautagaiak aitortzen dituzten ebazpenak egin eta jakitera emango ditu dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaririk.**

**7.- Ebazpen horiek Hezkuntzako dagokion lurralde-ordezkaritzaren egoitzaren iragarki-taulan argitaratuko dira. Argitaratze horren bitartez pertsona interesatuei jakinarazpena egin zaiela ulertuko da.**

**8.- Dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ikuskaritzako buruak ebazpenaren berri emango dio eragiten dion ikastetxeko zuzendariari, bertako iragarki-taulan ere argitara emateko.**

**9.- Ebazpen horien aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango diote dagokien lurralde historikoko hezkuntza-ordezkaritari.**

**14. artikulua.- Hasierako Prestakuntza Programa.**

**1.- Aukeratutako pertsonak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatutako Hasierako Prestakuntza Programa bat gainditu beharko dute. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean irakasleak prestatzeko eskumena duen zuzendaritza ebazpena emango du programa honen deialdia, antolakuntza, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehazteko. Ahal dela, programa hori ikasturteko hirugarren hiruhilekoan egingo da, hau da, aurreko zuzendaritzaren agintaldia amaitu baino lehen.**



**2.- Aukeratutako pertsonak egiaztatzen badute gutxienez bi urteko esperientzia dutela zuzendaritza-postu batean, ez dute Hasierako Prestakuntzako Programa egin beharrik izango. Hala eta guztiz ere, zuzendaritza-karguak dituzten pertsona guztiek egin beharrik dituzte hezkuntza-administrazioak antolatuko dituen ikastaroak eta gainerako jarduerak, horien zuzendaritza-jarduera eguneratzeko eta hobetzeko. Bestalde, Hasierako Prestakuntzako Programa egin beharrik ez dutenek ere egin ahal izango dute nahi badute, araudiak ezarritako baldintzetan.**

15. artikulua.- Zuzendaria izendatzea.

1.- Dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariek ikastetxeko zuzendari izendatuko du Hasierako Prestakuntza Programa gainditu duen edo egiteaz salbuetsia dagoen pertsona aukeratua. Izendapenaren ondorioak merezimendu-lehiaketaren deialdia ebazteko urteko uztailaren 1etik hasiko dira eta lau urtez luzatuko dira.

2.- Aukeraketa-batzordeak hautatu arren, salbuetsiak egon gabe Hasierako Prestakuntza Programa gainditzen ez duen inor ez da zuzendari izendatuko.

3.- Salbuetsiak egon ez eta Hasierako Prestakuntza Programa dagokion urteko uztailaren 1erako amaitu ez badute aukeratutako pertsonak, dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariek dagokien ikastetxeetako behin-behineko zuzendari izendatuko ditu pertsona horiek. Izendapena dagokion urteko uztailaren 1ean hasiko da eta Hasierako Prestakuntza Programa amaitu. Programa hori gainditu ondoren, zuzendari izendatuko dituzte artikuluko honetako 1. idatz-zatian ezarritako baldintzetan. Programa gainditzen ez badute, euren agintaldia hurrengo ekainaren 30ean amaituko da eta ikastetxe horretako zuzendari-postua betetzeko beste merezimendu-lehiaketa baterako deia egingo dute.

**16. artikulua.- Prozesuan hautatu gabeko pertsonak zuzendari izendatzea.**

**1.- Ez bada hautagairik aurkeztu, dagokion batzordeak ez badu pertsonarik aukeratu, edo aukeratutako pertsonak ez badu Hasierako Prestakuntzako Programa gainditu, dagokion lurralde historikoko hezkuntzako lurralde-ordezkariek zuzendari izendatuko du ezohiko moduan karrerako funtzionario den irakasle bat, gutxienez urte batekoa eta gehienez hiru urtekoa izango den epe baterako. Hezkuntzako Ikuskaritzak aurretiko txosten bat argitaratu behar du horretarako.**

**2.- Ikastetxe bateko hezkuntza-langileak ikastetxe horretako irakasle guztien ehuneko berrogeita hamar badira gutxienez, dagokion lurralde historikoko hezkuntzako lurralde-ordezkariek zuzendari izendatu ahal izango du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko hezkuntza-langile finkoen arteko irakasle bat.**

**3.- Artikulu honetan araututako izendatzeen epeak amaitzean, postu-hornikuntzarako deialdia egingo da berriz ere dagokion merezimendu-lehiaketan.**



17. artikulua.- Ikastetxe berrietan zuzendaria izendatzea.

Ikastetxe berrien kasuan, dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariek, Hezkuntzako Ikuskaritzaren txostena ikusi ondoren, karrerako irakasle funtzionario bat izendatuko du zuzendari, gehienez ere, hiru urtetarako. Denbora hori igarota, postu hori betetzeko deia egingo da dagokion merezimendu-lehiaketan.

18. artikulua.- Zuzendariak ebaluatzea.

1.- Ebaluatu egingo dira dekretu honetako 15. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuz izendatutako zuzendariak betetzen duten kargua eta egiten dituzten jarduerak, beti ere izendapenaren aginte-aldia betetzen badute. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren dagokion aginduak ezarriko du ebaluazio-prozesu hori arautuko duen oinarritzko arautegia.

2.- Ebaluatzeko garaian ikastetxeko taldeko aginte-organoen iritzia hartuko da kontuan, goian aipatutako aginduak ezarriko dituen baldintzetan.

**19. artikulua.- Zuzendariaren aginte-epea berritzea.**

**1.- Agintaldiko azken urtean dagoen zuzendariak aukera izango du bere izendapenaren berritzea eskatzeko, lau urteko beste agintaldi baterako, lehen agintaldian egindako lanagatik balorazio positiboa lortzen badu. Aukera horretaz baliatu nahi duten zuzendariak dagokion Lurralde Historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari idazki bat bidali behar diote, berariazko eskaera eginez, dagokion araudian zehaztuko den epean. Idazki horri zuzendaritza-proiektuaren eguneratzea erantsi beharko diote interesdunek, eta aurreko agintaldian zuzendari gisa egindako lanaren ebaluazioaren zati bat izango da proiektu hori.**

**Hasierako zuzendaritza-proiektuan azaldutako helburuak lortu diren ala ez baloratuko du proiektu berri horrek. Era berean, hobetzeko egindako proposamenak eta, behar izanez gero, helburu berriak planteatuko ditu, ikastetxeko zuzendari gisa hasi nahi duen epe berriari begira.**

**2.- Eskatzaileek betetzen badituzte izendapenaren berritzea eskatzeko baldintzak, indarrean dagoen araudiak xedatutakoaren arabera, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek horren berri emango diete ebaluazioa egiteko ardura duten taldeei.**

**3.- Eskatzaileek betetzen ez badituzte bere izendapenaren berritzea eskatzeko baldintzak, indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek ezezkua emango diote eskaerari, eta erabaki hori jakinaraziko diete interesatuei. Ezezko horren aurka, gora jotzeko helegitea jar dezakete interesatuek, Hezkuntza sailburuordearen aurrean, hilabeteko epea agortu baino lehen, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.**



**4.- Zuzendariak agintaldiko azken urtean ez badu aurkeztu beste lau urtez bere izendapenaren berritzeko eskaera, artikuluko xedatutako epea agortu baino lehen, edota eskaera egin eta ezezkoa eman badiote, eskaera aurkezteko indarrean dagoen araudian xedatutako baldintzak betetzen ez dituelako edo balorazio ez-positiboa lortzen duelako, ikastetxe horretako zuzendari-plaza agertuko da betetzeko postuen artean, ikastetxe publikoetako zuzendariak aukeratzeko hurrengo merezimendu-lehiaketan. Beharrezko den kasuetan, dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkariek izendatuko du ezohiko moduan irakasle bat, karrerako funtzionarioa izan behar duena, ikastetxearen zuzendari izateko, epe baterako. Epe hori izango da jarraitzen ez den zuzendariak kargua utzi eta lanpostu hori betetzeko merezimendu-lehiaketa erabaki artekoa.**

**5.- Ikastetxeko zuzendaritzan bi epe jarraian bete ondoren zuzendariak zuzendari izaten jarraitu nahi badu, berriz aurkeztu beharko du bere hautagaitza dagokion merezimendu-lehiaketan Pertsona hori berriz aukeratu eta izendatzen badute, bere agintaldiak iraupen berbera izango du, dagokion epearen amaieran egindako lanaren balorazio positiboa izan bada. Prozedura hori etengabe errepikatu ahal izango bada ere, pertsona berak bi agintaldi jarraian bete ondoren, beti egin beharko da lehiaketarako deia.**

**6.- Dekretu honetako 16. eta 17. artikuluetan aurreikusitako kasuetan izendatutako ikastetxeetako zuzendariak ezingo dute agintaldia berritu.**

20. artikulua.- Zuzendariak kargua uztea.

1.- Zuzendariak kargua utziko du kasu hauetan:

- a) Izendapen-epea amaitzean edo, hala badagokio, epe horren luzapenaren amaieran.
- b) Zuzendariak izendatzeko derrigorrezkoak ziren baldintzetakoren bat ez betetzea eragiten duen edozein egoera gertatzen denean.
- c) Arrazoiak emanda zuzendariak karguari uko egin eta dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek uko egitea onartzen duenean. Hurrengo ikasturtean ikastetxe horretan ez egoteagatik eragindako karguari uko egiteak urte horretako ekainaren 30etik aurrera izango du eragina.
- d) Ezustean etorritako minusbaliotasun fisiko edo psikikoagatik.
- e) Zuzendariaren karguari lotutako funtzioak larriki ez betetzeagatik, dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek erabakita edo ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenak proposatuta –bertako kideen bi herenaren gehiengo bidez–, dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek zuzendari-funtzioak baliogabetzen dituztenean. Dena dela, baliogabetze-ebazpena eman baino lehen aldebiko espediente bat egingo da, eta interesatuari eta ordezkaritza-organo gorenari entzungo zaie.



2.- Izendapen-epea amaitu uzten badu kargua zuzendariak, zuzendariaren agintaldiaren azken ikasturtean deialdia egingo da zuzendari berria aukeratzeko lehiaketan leku hori betetzeko. Era horretan, zuzendariak kargua uztera doan unean ikastetxeak zuzendari berria izendatu ahal izango du.

3.- Zuzendariak artikuluko honetako 1. idatz-zatian zehaztutako beste edozein arazoirengatik kargua uzten duenean, dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek ikastetxeko zuzendari berria izendatuko du ezohiko moduan. Kargu uztea, merezimendu-lehiaketaren urteko deialdi-agindua argitaratzeko data baino lehen gertatu bada, zuzendari berria izendatu duten unetik ekainaren 30era arte egongo da kargu horretan. Izendatuko den zuzendari berria, bestela, aurreko zuzendariak kargua utzi zuen unetik hasi eta hurrengo ikasturteko ekainaren 30era arte egongo da. Edonola ere, kargu uztearen ondoren deituko den merezimendu-lehiaketako lehen deialdian sartuko da ikastetxe horretako zuzendari-plaza.

4.- Zuzendariari diziplina-espedientea irekitzen bazaio, zuzendari hori bere funtzioetatik zuhurtziaz indargabe uztea erabaki dezake dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek. Horretarako, diziplina-erregimen arloan indarreko araudian aurreikusitako baldintzak beteko dira. Kasu horretan, zuhurtziaz indargabe uzteak irauten duen bitartean, zuzendariaren funtzioak ikastetxeko zuzendariordeak –halakorik badago– hartuko ditu bere gain. Bestela, ikastetxeko Ikasketaburuak beteko ditu.

21. artikulua.- Ikastetxeko pertsona bakarreko gainerako gobernu-organoetarako proposamena, izendapena, kargu uztea eta kargutik kentzea.

**1.- Dekretu honetan jasotako zuzendaria izendatzeko edozein kasutan, ikastetxeko zuzendari izendatu duten edo izendatuko duten pertsonak ikastetxeko pertsona bakarreko gainerako gobernu-organoak izendatzeko proposatuko dio dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariei. Dena den, proposatu aurretik bertako klaustroari eta ordezkari-argano gorenari jakinaraziko dio. Lanpostua ikastetxean bertan duten irakasleak izan beharko dute proposatutakoak.**

**Zuzendariak saiatu behar du ikastetxeko gainerako kide bakarreko gobernu-organoak beteko dituzten hautagaiak proposatzerakoan, gizonen eta emakumeen proportzioa orekatua izatea.**

2.- Dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek, ikastetxeko pertsona bakarreko gainerako gobernu-organoak betetzeko proposatutako pertsonak izendatuko ditu, hauek proposatu dituen zuzendariaren agintaldi-epe berbererako.

3.- Ikastetxeko pertsona bakarreko gobernu-organoek (zuzendari ez direnak) kasu hauetan utziko dute kargua:

a) Izendapen-epea amaitzean.

b) Ikastetxeko zuzendariak kargua uztean.



c) Izendatzeko derrigorrezkoak ziren baldintzetakoren bat ez betetzea eragiten duen edozein egoera gertatzen denean. Ikastetxeko destinoa galduz gero, ezingo zaio bertan jarraitzeko zerbitzu-eginkizunik eman, pertsona bakarreko organoa dela kontuan hartuta. Hurrengo ikasturtean ikastetxe horretan ez egoteagatik eragindako karguari uko egiteak, berriz, urte horretako ekainaren 30etik aurrera izango du eragina.

d) Ikastetxeko zuzendariak proposatuta, dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek pertsona hori bere kargutik kentzean.

e) Arrazoiak emanda zuzendariak karguari uko egin eta dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek uko egitea onartzen duenean.

f) Ezusteko minusbaliotasun fisikoa edo psikikoa.

g) Zuzendariaren karguari lotutako funtzioak larriki ez betetzeagatik, dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek errebokatuta edo arrazoiak eman eta ikastetxeko ordezkari-taldea gorenak proposatuta. Dena dela, baliogabetze-ebazpena emateko, alde-biko espediente egingo da eta interesdunari, ikastetxeko zuzendariari eta ordezkari-taldea gorenari entzungo zaie.

4.- Lehen aipatutako edozein arrazoiengatik, zuzendariaren agintaldian ikastetxeko pertsona bakarreko gobernu-organoren baten kargua hutsi geratzen bada, zuzendariak taldeko ordezkari-taldea gorenari jakinaraziko die; gero dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek ikastetxean destinoa duen irakasle bat proposatuko dio.

22. artikulua.- Ikasketaburuak eta idazkariak ebaluatzea.

1.- Ebaluatu egingo dira dekretu honetako 15. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuta izendatutako zuzendarien zuzendaritza-taldeetako ikasketaburu eta idazkariak betetzen duten kargua eta egiten dituzten jarduerak, beti ere izendapenaren aginte-aldia betetzen badute. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren dagokion aginduak ezarriko du ebaluazio-prozesu hori arautuko duen oinarritzko arautegia.

2.- Ebaluatzeko garaian ikastetxeko taldeko aginte-organoen iritzia hartuko da kontuan, goian aipatutako aginduak ezarriko dituen baldintzetan.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.- Eibarko Bizitegi Zentroko zuzendaria aukeratu, izendatu eta kargutik kentzeko aplikatuko da Dekretu honetan xedatutakoa, bai eta pertsona bakarreko gainerako gobernu-organok izendatu eta kargutik kentzeko ere.

Bigarrena.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila titularra ez den ikastetxe publikoetan, administrazio titularrak ezarriko ditu ikastetxeko gobernu-organoei dagozkien karguak betetzeko baldintzak eta betebeharrak, beti ere indarrean den lege-esparrua errespetatuta.



Hirugarrena.- Dekretu hau indarrean sartu eta, gehienez ere, urtebeteko epean dekretu bidez arautuko da agintaldian balorazio positiboa lortu duten zuzendari, ikasketaburu eta idazkarien aitorten pertsonala eta profesionala; izan ere, hori ezartzen da Euskal Eskola Publikoaren 33 sexies eta 36.4 artikuluek ekainaren 13ko 3/2008 Legearen bederatzigarren eta hamaikagarren artikuluen idazkeran.

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau indarrean sartzean izendapenak eginak dituzten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako pertsona bakarreko gobernu-organoen kasuan, pertsona horiek karguak betetzen jarraituko dute izendatu zituztenean erabaki zen denborarako.

#### INDARGABETZEKO XEDAPENA

Maiatzaren 13ko 116/1997 Dekretua —Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako pertsona bakarreko gobernu-organok aukeratzeko prozedura erregulatzen duen Dekretua— indargabetuta geratzen da, baita Dekretu honetan xedatutakoaren aurka doan maila bereko edo txikiagoko beste edozein arau ere.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik jarriko da indarrean.



## ERANSKINA

### ZUZENDARIA AUKERATZEKO MEREZIMENDU LEHIAKETAREN LEHEN FASEAREN BALIOESPENA

Merezimendu-lehiaketaren lehen fasean hautagaiak aurkeztutako zuzendaritza-proiektua balioetsiko da.

Lehen fase honetan hautagaiak, gehienez, 70 puntu lortu ahal izango dituzte.

Aukeraketa-batzordeak, hautagai bakoitzaren zuzendaritza-proiektuaren honako alderdi hauek balioetsi beharko ditu:

a) Zer dakien ikastetxeaz; hezkuntza-komunitateak behar eta espero duenaz; gizarte-, ekonomia-, kultura-, eta lan-inguruaz eta horrek ikastetxean duen eraginaz. Gehienez 5 puntu.

b) Zuzendaritza-proiektua amaitutakoan lortzea espero diren helburuak zehaztea. Baloratu egingo da planifikazioa estrategikoa izatea. Hala izateko, proposatutako helburuek koherenteak izan behar dute estrategia-dokumentuekin (hezkuntza-proiektua, estrategia-plana, curriculum-proiektua, antolakuntza- eta jardueraraudia, eta urteko memoria) eta komunitateak behar eta espero duenarekin. Gehienez 10 puntu.

c) Oro har, helburuak lortzeko zer egingo den (hots, jarduera-lerroak) eta zer baliabide beharko diren zehaztea. Baloratuko da, halaber, erantzukizuna banatuta egotea kide guztien artean, irakasleen elkarlana sustatzea, giro eta bizikidetzaren onartzea lortzeko mekanismoak egotea, giza baliabideak eta baliabide materialak modu eraginkorrean kudeatzea, eta hezkidetzaren filosofia bultzatzen duen hezkuntza-eredua sustatzea, andre-gizonen arteko berdintasuna pizten duena eta bereizkeriazko jokabideak eta ikasleen artean genero-indarkeria prebenitzen dituenak. Gehienez 14 puntu.

d) Nola garatuko den lidergo pedagogikoa. Hauek baloratuko dira: irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzeko curriculum-neurri egokiak bultzatzea; aniztasunaz arduratzea eta ezberdintasunak konpentsatzea; baliabideak izatea, irakasleek tutoretza eta orientazioa eman diezaieten ikasleei; familien parte-hartzea bultzatzea, zer erantzukizun duten jabe daitezen. Gehienez 16 puntu.

e) Barneko eta kanpoko eragileen parte-hartzea eta lankidetzaren bultzatzea. Baloratu egingo dira parte-hartzea eta konpromisoa bultzatzen dituzten neurriak, hauek guztiak kontuan hartzen dituztenak: ikasleak, familiak, administrariak, zerbitzu-eragileak eta ikastetxeko langileak. Baita elkarlana sustatzen duten neurriak ere: beste ikastetxeekin, instituzioekin, zerbitzu-eragileekin, enprekin eta inguruko pertsonekin. Gehienez 10 puntu.





f) Ebaluazio sustatzea eta aldaketa kudeatzea, ikasleen hezkuntza-emaizak hobetzeko. Baloratu egingo da barne-ebaluazioak egitea aurreikusita izatea: ikastetxearen programena, antolakuntzarena eta funtzionamenduarena, hain zuzen ere. Era berean, barne- eta kanpo-ebaluazioen emaitzekin zer egingo den baloratuko da; izan ere, ebaluazio horiek curriculum eta antolakuntza hobetzen laguntzen dute, eta ondorioz, ikasleek hezkuntza hobea jasotzen dute. Gehienez 10 puntu.

g) Aurkeztutako zuzendaritza-proiektua nola garatuko den eta zer segimendu izango duen. Baloratu egingo da mekanismoak aurreikusita izatea: batetik, zuzendaritzako taldekideen artean koordinazioa eta lanen banaketa egon dadin; bestetik, ikastetxeko beste gobernu-eta koordinazio-organismoek proiektuaren eta haren garapenaren berri izan dezaten. Baloratuko da, halaber, adierazlerik badagoen ezarritako helburuak bete direla egiaztatzeko. Gehienez 5 puntu.

### **ZUZENDARIA AUKERATZEKO MEREZIMENDU LEHIAKETAREN BIGARREN FASEAREN BAREMOA**

Bigarren fase honetan hautagaiek 30 puntu lortu ahal izango dituzte, gehienez, honako atal hauen arabera banatuta:

A) Ikastetxe publikoetako zuzendaritza- edo koordinazio-karguak betetzeagatik:

A.1.- Ikastetxe publikoetan zuzendari-kargua betetzeagatik: 0,1 puntu, karguan betetzen duen hilabete oso bakoitzeko. Hilabetea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek ez dute punturik emango.

A.2.- Ikastetxe publikoetan zuzendariorde, ikasketaburu, eta idazkari karguak betetzeagatik: 0,05 puntu, karguan bete duen hilabete oso bakoitzeko. Hilabetea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek ez dute punturik emango.

A.3.- Ikastetxe publikoetan zuzendari alboko, gaueko ikasketaburu, ikasketaburu alboko, idazkari alboko edo idazkariorde kargua betetzeagatik: 0,025 puntu, karguan betetzen duen hilabete oso bakoitzeko. Hilabetea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek ez dute punturik emango.

A.4.- Ikastetxe publikoetan mintegiburu, sailburu edo zikloko koordinatzaile kargua betetzeagatik: 0,0125 puntu, karguan betetzen duen hilabete oso bakoitzeko. Hilabetea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek ez dute punturik emango.

A.1, A.2, A.3 eta A.4 azpiatalen baturaren ondorioz A) atalean gehienez 7 puntu lortuko dira.

B) Aurreko agintaldiren batean egindako zuzendari-lanarengatik balorazio positiboa izateagatik:

B.1.- Aurreko agintaldiren batean egindako zuzendari-lanarengatik balorazio positiboa izateagatik: 2 puntu.



**B.2.- Aurreko agintaldiren bat baino gehiagotan egindako zuzendari-lanarengatik balorazio positiboa izateagatik: 3 puntu.**

**B.1 eta B.2 idatz-zatietako puntuazioak bateraezinak dira.**

**B) atalean gehienez 3 puntu lortuko dira.**

**C) Hezkuntza-ikuskatzaile gisa betetako lanagatik: 0,0625 puntu, ikuskatzaile-kargua betetzen ematen duen hilabete oso bakoitzeko. Hilabetea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek dute punturik emango.**

**C) atalean gehienez 1,5 puntu lortuko dira.**

**D) Bigarren Hezkuntzako Institutu bateko edo Goi Mailako Lanbide Heziketako Institutu Espezifikoko bateko zuzendari izateko merezimendu-lehiaketetan, Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegokoa izateagatik; Hizkuntza Eskola Ofizial bateko zuzendari izateko merezimendu-lehiaketetan, Hizkuntza Eskola Ofizialeko Katedradunen Kidegokoa izateagatik; Diseinuko Goi Eskolako eta Arte Eskolako zuzendari izateko merezimendu-lehiaketetan, Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradunen Kidegokoa izateagatik: 1,5 puntu.**

**E) Zuzendu nahi duten ikastetxeak eskaintzen dituen irakaskuntzetakoren batean irakaskuntza zuzenean esperientzia izateagatik: 0,00625 puntu irakasten emandako hilabete oso bakoitzeko, bost urte oso igaro ondoren kontatzen hasita. Hilabetea osatu gabe irakasten egindako gainerako egunek ez dute punturik emango. Irakaskuntzako lehen bost urteengatik ez da punturik lortzen.**

**E) atalean gehienez 1,5 puntu lortuko dira.**

**F) Zuzendu nahi den ikastetxean izandako esperientziagatik: 0,0125 puntu, karguan bete duen hilabete oso bakoitzeko. Hilabetea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek ez dute punturik emango.**

**F) atalean gehienez 3 puntu lortuko dira.**

**G) Unibertsitatez kanpoko edozein ikastetxe publikoetako ordezkari-argano gorenean irakasleen ordezkari hautetsi gisa izandako urte bakoitzeko esperientziagatik: 0,05 puntu. Urtea osatu gabe karguan egindako gainerako egunek edo hilabeteek ez dute punturik emango.**

**G) atalean gehienez puntu 1 lortuko da.**

**H) Hizkuntzak jakitearren:**

**H.1.- Irakaskuntzako HE1 edo baliokidea egiaztatzeagatik: 1,5 puntu.**

**H.2.- Irakaskuntzako HE2 edo baliokidea egiaztatzeagatik: 5,5 puntu.**

**H.1.- eta H2 idatz-zatietako puntuazioak bateraezinak dira.**



**H.3.- Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Esparru Komunean definitutako B1 Mailako edozein hizkuntzako -euskara izan ezik- ziurtagiri bakoitzeko: 0,25 puntu. Baloratuko diren titulu eta ziurtagiriak honako hauek izango dira:**

**a) Hizkuntza guztietan:**

- Hizkuntza Eskola Ofizialetan egindako ikasketak egiaztatzen dituen Maila Ertaineko Ziurtagiria, abenduaren 29ko 1629/2006 Dekretuak arautzen duen ikasketa-planaren arabera.

- Hizkuntza Eskola Ofizialetan egindako ikasketak egiaztatzen dituen Oinarrizko Zikloaren Ziurtagiria, urtarrilaren 24ko 47/1992 Dekretuak arautzen duen ikasketa-planaren arabera.

**b) Ingelesezt:**

- Preliminary English Test (PET).

- PTE General Pearson Test of English (LEVEL 2).

- Trinity College ISE 1.

- BEC Business English Certificate-Cambridge (PRELIMINARY Good & Exceptional).

**c) Frantsesezt:**

- DELF 1er degré.

- Diplôme d'Etudes en Langue Française DELF B1 (CIEP).

- Certificat d'Etudes de Français Pratique 2 (CEFP2) (AF).

- Certificat du Français Professionnel 2 (CFP2).

- Certificat de Français du Secrétariat (CFS).

- Certificat de Français du Tourisme et de l'Hôtellerie (CFTH).

- Certificat de Français Scientifique et Technique (CFST).

- Diplôme de Français Professionnel B1 (DFP B1).

- DFP Secrétariat B1.

- DFP Tourisme et Hôtellerie B1.

- DFP Scientifique et Technique B1.

**d) Alemanez:**

- **Zertifikat Deutsch (ZD).**
- **Zertifikat Deutsch als Fremdsprache (ZDdaF).**
- **TELC Deutsch B1 Beruf.**

**H.4.- Hizkuntzearako Erreferentziazko Europako Esparru Komunean definitutako B2 Mailako edozein hizkuntzako -euskara izan ezik- ziurtagiri bakoitzeko: 0,5 puntu. Baloratuko diren titulu eta ziurtagiriak honako hauek izango dira:**

**a) Hizkuntza guztietan:**

- **Hizkuntza Eskola Ofizialetan egindako ikasketak egiaztatzen dituen Maila Aurreratuko Ziurtagiria, abenduaren 29ko 1629/2006 Dekretuak arautzen duen ikasketa-planaren arabera.**
- **Hizkuntza Eskola Ofizialetan egindako ikasketak egiaztatzen dituen Gaitasun Ziurtagiria, urtarrilaren 24ko 47/1992 Dekretuak arautzen duen ikasketa-planaren arabera.**

**b) Ingelesez:**

- **First Certificate in English (FCE).**
- **PTE General Pearson Test of English (LEVEL 3).**
- **Trinity College ISE 2.**
- **BEC Business English Certificate-Cambridge (VANTAGE Good & Exceptional).**

**c) Frantsesez:**

- **DEL F 2e degré.**
- **Diplôme d'Etudes en Langue Française DELF B2 (CIEP).**
- **Diplôme de Langue Française (DL) (AF).**
- **Diplôme de Français des Affaires 1 (DFA1).**
- **Certificat de Français Juridique (CFJ).**
- **Diplôme de Français Professionnel dans le Monde des Affaires B2 (DFP Affaires B2).**
- **DFP Juridique B2.**



- DFP Médical B2.

- DFP Secrétariat B2.

d) Alemanez:

- Goethe-Zertifikat B2.

- Zertifikat Deutsch+.

- Zertifikat Deutsch für den Beruf.

- Deutsch für den Beruf (ZDfB).

- TELC Deutsch B2.

- Mittelstufe Deutsch (MD).

- TestDaf Niveaustufe 3. Maila.

**H.5.- Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Esparru Komunean definitutako C1 Mailako edozein hizkuntzako -euskara izan ezik- ziurtagiri bakoitzeko: 0,75 puntu. Baloratuko diren titulu eta ziurtagiriak honako hauek izango dira:**

a) Hizkuntza guztietan:

- Hizkuntza Eskola Ofizialetan egindako ikasketak egiaztatzen dituen C1 Mailako Ziurtagiria, abenduaren 29ko 1629/2006 Dekretuak arautzen duen ikasketaplanaren arabera.

b) Ingelesez:

- Certificate in Advanced English (CAE).

- PTE General Pearson Test of English (LEVEL 4).

- Trinity College ISE 3.

- BEC Business English Certificate-Cambridge (HIGHER Good & Exceptional).

c) Frantsesez:

- DALF.

- Diplôme Approfondi de Langue Française DALF C1 (CIEP).

- Diplôme Supérieur d'Etudes Françaises Modernes (DS) (AF).

- Diplôme Supérieur de Langue et Culture Françaises (DSLFCF).



- **Diplôme de Français des Affaires 2 (DFA2).**
- **Diplôme de Français Professionnel dans le Monde des Affaires C1 (DFP Affaires C1).**

**d) Alemanez:**

- **Goethe-Zertifikat C1 (ZMP).**
- **Prüfung Wirtschaftsdeutsch International.**
- **Zentrale Mittelstufenprüfung (ZMP).**
- **TELC Deutsch C1.**
- **Oberstufe Deutsch.**
- **TestDaf Niveaustufe 4. eta 5. Maila.**
- **Deutsche Sprachprüfung für den Hochschulzugang (DSH).**

**H.6.- Hizkuntzearako Erreferentziazko Europako Esparru Komunean definitutako C2 Mailako edozein hizkuntzako -euskara izan ezik- ziurtagiri bakoitzeko: puntu 1. Baloratuko diren titulu eta ziurtagiriak honako hauek izango dira:**

**a) Hizkuntza guztietan:**

- **Hizkuntza Eskola Ofizialetan egindako ikasketak egiaztatzen dituen C2 Mailako Ziurtagiria, abenduaren 29ko 1629/2006 Dekretuak arautzen duen ikasketaplanaren arabera.**

**b) Ingelesez:**

- **Certificate of Proficiency in English (CPE).**
- **PTE General Pearson Test of English (LEVEL 5).**
- **Trinity College ISE 4.**

**c) Frantsesez:**

- **Diplôme Approfondi de Langue Française DALF C2 (CIEP).**
- **Diplôme de Hautes Etudes Françaises (DHEF) (AF).**
- **Diplôme Approfondi de Français des Affaires (DAFA).**



- **Diplôme de Français Professionnel dans le Monde des Affaires C2 (DFP Affaires C2).**

**d) Alemanez:**

- **Zentrale Oberstufenprüfung (ZOP).**

- **Kleines Deutsches Sprachdiplom (KDS).**

- **Grobes Deutsches Sprachdiplom (GDS).**

- **Wirtschaftssprache Deutsch (WD).**

**Hizkuntza guztietan bateraezinak dira H.3, H.4, H.5 eta H.6 idatz-zatietako puntuazioak.**

**H.1, H.2, H.3, H.4, H.5 eta H.6 idatz-zatiak batuta, H) atalean, gehienez ere, 6,5 puntu lortuko dira.**

**I) Unibertsitate-titulazioengatik:**

**I.1.- Doktore-titulu bakoitzeko: puntu 1.**

**I.2.- Master-titulu bakoitzeko: 0,8 puntu.**

**I.3.- Gradorako, Lizentziaturako, Ingeniaritzako, Arkitekturako edo, ondorio guztietako, legez baliokide aitortutako titulu bakoitzeko, parte hartzen deneko Kidegoan sartzeko alegatu den titulua izan ezik: 0,75 puntu.**

**I.4.- Diplomatura bakoitzeko, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa edo, ondorio guztietako, legez baliokide aitortutako titulu bakoitzeko, parte hartzen deneko Kidegoan sartzeko alegatu den titulua izan ezik, baita aurreko atalan baloratu ez den Lizentziatura, Arkitektura edo Ingeniaritzako lehen zikloari dagozkion ikasketa bakoitzeko ere: 0,5 puntu.**

**I.5.- Urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuak araututako master-titulu ofizial bakoitzeko: 0,25 puntu.**

**I.1, I.2, I.3, I.4 eta I.5 azpiatalen baturaren ondorioz I) atalean gehienez 2 puntu lortuko dira.**

**J) Ikastetxeen kudeaketa eta zuzendaritza, hezikidetza edo emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako prestakuntza-jarduera eta argitalpenengatik:**

**J.1.- Hautagaiak bakarrik egindako ikastetxeen kudeaketa, antolakuntza eta zuzendaritzarekin lotutako argitalpen bakoitzeko: Puntu 1.**

**J.2.- Hautagaiak bakarrik egindako hezikidetza edo hezkuntza-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako argitalpen bakoitzeko: 0.5 puntu.**



**J.3.- Hautagaiak beste hainbat lagunekin batera egindako ikastetxeen kudeaketa, antolakuntza eta zuzendaritzarekin lotutako argitalpen bakoitzeko: 0,5 puntu.**

**J.4.- Hautagaiak beste hainbat lagunekin batera egindako hezikidetza edo hezkuntza-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako argitalpen bakoitzeko: 0,25 puntu.**

**J.5.- Hautagaiak irakasle, txostengile edo koordinatzaile gisa jardunda, ikastetxeen kudeaketa, antolakuntza eta zuzendaritzarekin lotuta, herri-administrazioek edo unibertsitateek antolatu edo homologatutako 20 orduko (gutxienez) prestakuntza- edo ikastaro-jarduera bakoitzeko: Puntu 1.**

**J.6.- Hautagaiak irakasle, txostengile edo koordinatzaile gisa jardunda, hezikidetza edo hezkuntza-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotuta, herri-administrazioek edo unibertsitateek antolatu edo homologatutako 20 orduko (gutxienez) prestakuntza- edo ikastaro-jarduera bakoitzeko: 0.5 puntu.**

**J.7.- Ikastetxeen kudeaketa, antolakuntza eta zuzendaritzarekin lotuta, herri-administrazioek edo unibertsitateek antolatu edo homologatutako 40 orduko (gutxienez) prestakuntza- edo ikastaro-jarduera bakoitzeko: 0.5 puntu.**

**J.8.- Hezikidetza edo hezkuntza-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotuta, herri-administrazioek edo unibertsitateek antolatu edo homologatutako 40 orduko (gutxienez) prestakuntza- edo ikastaro-jarduera bakoitzeko: 0.25 puntu.**

**J.1, J.2, J.3, J.4, J.5, J.6, J.7 eta J.8 azpiatalen baturaren ondorioz J) atalean gehienez 3 puntu lortuko dira.**